

erreferenteak **SKOLAE** referentes



bideak zabaltzen dituzten emakumeak
mujeres que abren caminos

Amaia Remírez García

Iruñean sortua, 1982an, Amaiak Hegoalde Ikastolan eta Biurdana BHIIn ikasi zuen eta Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatu, Nafarroako Unibertsitatean.

Hainbat konpainiatan aritu ondotik, telebista-saio eta serieak ekoizten, 2009an Kanaki Films ekoiztetxean hasi zen *Another day of life* filmaren ekoizpen exekutiboa gidatzeko.

Animazioa eta benetako irudiak nahasten dituen film luze hau 7,7 milioi euroko nazioarteko koproduzio handinahia da. Amaiari egokitu zitzaion 200tik gora laguneko taldeaz nahiz 26 finantzazio-iturritik gora izan zuen proiektuaren kudeaketa ekonomikoa konplexuaz arduratzea.

Filma Cannesen Sail Ofizialean estreinatu zen 2018an eta animazioko luze onenaren European Film Award, Donostiako Publikoaren Saria, Goya saria kategorian berean eta animaziozko Iberoamerikako film onenaren Platino Saria irabazi zituen. Amaia, koproduzio kideekin batera, 2018ko Europako Ekoizle Onena izendatu zuten Cartoon Tribute sariketan, Bordelen.

Arrakasta handia izan du baita Amaiaren beste lan zinematografiko batek ere, *Minerita*, zeinak dokumental labur onenaren Goya saria lortu zuen 2014an. Era berean, Amaiak lagunduta idatzi eta ekoiztu zuen bere lehenengo film laburra, *Virgen Negra*, Goya sarietan hautagai izan zen 2012an.

Amaiak bideak irekitzen ditu bere lanarekin eta zinema ekoizpenaren arloan duen aitortutako presentziarekin, non emakumeak, batez ere, aktore edo ikusle izan diren. Bere begiradak eta ekoizle zein gidolari gisa ondo egindako lanak neskato-mutikoentzako erreferente bihurtzen dute, mundu interesgarri, sortzaile zein inspiratzailea dena euren bizitzetan.

Amaia Remírez García (Pamplona, 1982), tras estudiar en la Ikastola Hegoalde y en el IES Biurdana, se licenció en Comunicación Audiovisual por la Universidad de Navarra.

Después de trabajar en la producción de programas y series de TV para numerosas compañías, se incorporó en 2009 a Kanaki Films para encabezar la producción ejecutiva de *Un día más con vida*. Este largometraje de animación e imagen real es una ambiciosa coproducción internacional con 7,7 millones de euros de presupuesto. Amaia se hizo cargo de la coordinación de un equipo de más de 200 personas, así como de la compleja gestión económica de este proyecto, que contó con más de 26 fuentes de financiación.

La película se estrenó en Sección Oficial de Cannes en 2018 y recibió el European Film Award como mejor largometraje de animación, el Premio del Público en San Sebastián, el Premio Goya en la misma categoría y el Premio Platino, Mejor Película Iberoamericana de Animación. En 2018 Amaia fue elegida junto a sus coproductores como Mejor Productora Europea 2018 en los Cartoon Tribute, Burdeos.

Otro de los proyectos cinematográficos producidos por Amaia que ha cosechado un gran reconocimiento internacional es el documental *Minerita*, merecedor del Goya al mejor cortometraje documental en 2014. Asimismo, el primer cortometraje co-escrito y producido por Amaia, *Virgen Negra*, fue nominado al Goya en 2012.

Amaia abre caminos con su trabajo y reconocida presencia en el mundo de la producción cinematográfica, un mundo en el que las mujeres sobre todo, han sido actrices o espectadoras. Su mirada y su excelente trabajo como productora y guionista la convierten en un referente para niñas y niños, al acercar y mostrar un mundo interesante, creativo e inspirador para sus vidas.

SKOLAE
BERDIN BIDEAN
CRECIENDO EN IGUALDAD

Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua
Gobierno de Navarra Departamento de Educación

